

Zer dabil or? (Azilla)

- Bilbao'tik Milan'era egazkiña zuzen.
- Muzkiz'en euskerearen eguna.
- Aznar'ek epaitegira daroaz Jaurlaritzaren ordezkari-tzak. Eta zer?
- Jaurlaritzak gaiso-etxeetan umeentzat ikas-gelak ipiñi dauz.
- Kaldera'k diñoanez, Ana Palazio'k txirotasun aundia ta buru laburra dauz.
- Lendakaria ez da joango Madrid'era erregegaiaren ezkontzara.
- Janari ezeak urte batean %47 karutu dira.
- Amar urtean gure soloak %60 urritu dira.
- "Lula"ren ustez Euzkadi erri serioa da, ekintzaillea ta laguntzaillea.
- Euskal-kaietan joan-etorria ugaritu egin da.
- 26 il dabez Irak'en kamioi-bonba bategaz, 18 italiar-rak, espaiñatarren ondoan.
- Europa'ko lurraldeak Ibarretxe'ren esondapenaren zati batzuk ados.
- Konfesbak'en ustez, ona lantegi gitxiago etortea ez da Ibarretxe'gaitik.
- Aldundiak %50 geigo eralgiko dau bideak konpon-tzen.
- Laterri Batuen okerkeri aundia da Guntanamo'ko espetxea.
- Prestige'ren ondoratzeak 230.000 egazti il dauz.
- Euzkadi gaur España'n eta Europa'n lurralderik abe-ratsanetarikoa da.
- Katalunia'n abertzaleak nagusi auteskundean.
- Madrid'eko Goi Gotzain dan Rouko Kardinala Iba-rette'ren esondapena'ren aurka.
- Euskalerriko Gotzaiñak Ibarretxe'ren esondapena'ren alde.
- Anasagasti'k Rouko Kardinala Korte'ko kapellaua dala diño.
- Rouko Kardinalak bere izenean bakarrik egin ei dau itz, diño Uriarte Gotzaiñak.
- Sabino Arana'ren irudia egin dabe Bilbao'ko Albia'n. Ordua zan!
- Irak'en zazpi soldadu espaiñar il dabez.
- Legeak aldadu nai dabez Ibarretxe ta Atutxa espetxe-ra eroateko. Demokrazia?

Itxas-lapur euskaldunak

Ez dira eredugarriak, sarritan okerreko bideak artzen dabez, baiña euskaldunak dira eta ezagutu egin bear doguz.

Bildurgarriak ziran eta gizaldietan iraun dau itxas-lapur euskaldunen eta inglesen arteko asarreak. 1350n. urtean itxas-lapur euskaldunak Ingalaterra'ra joan ziran guda egiteko ustez eta Eduardo erregeak ikaratu-ta, eskutitz bat egin eutsen Kanterburi eta York'eko goi-gotzaiñai eta auxa diñotse: "Arroak dira eta Flandesén ontzidi aundi bat batu dabe gure ontziak apurtzeko eta gure erreinu onetara sartzeko". 1350n. urtean egin eben euren aurka gudaldia eta euskaldunak ondatuta geratu ziran eta iges egin eben. Gudan 36 itxas-ontzi arrapatu ebezan, gizon eta izkillu ta guzti. Urrengo gudaldiak Txerburgo'n, Plymouth'en, Portland'en eta abar izan ziran eta inglesak iges joan bear izan eben.

1477n. urtean inglesak itxas-ontzi bat bialdu eben Gipuzkoa'ra bitxiz eta eun ederrez beterik, baiña ekaitza zala-ta Frantzia'ko kai batera sartu ziran eta an ontzira etorri jakezan bost itxas-lapur euskaldun eta itxasora urten ziranean, ontzi-eroaleak lo egozala, itxas-lapur euskaldunak samea ebagi eutsen, gorpuak itxasora bota eta ontzia Galizia'ra eroan eta saldu. Baiña gorpuak agertu ziran eta itxaslapur euskaldunak be eriotzara epaitu ebezan eta iges egin eben.

Itxas-lapurren aurka guda egiteko gudaldian galdu eban bere bizia Mungia'ko Matxin ospetsuak. Andrea Doria'k iges egin ebanean, berak eta bere ontzikoak bakarrik irabazi eutsen Barbarroja korsarioari, Baiña Korfu'n arrapatu eben Matxin eta fedea ukatzeko eskatu. Ori nai ez ebelako il egin eben. Orra or martiri bat santu egin bagerik!

Olazar'tar Martin'ek